



## Egungo Donostiako zonalde batzuk Pasaiarenak direla diote

**UDALA** ▶ Pasaiako Udalak 1805ko mugak aldarrrikatu ditu eta gaia bideratzeko batzordea sortu du

**LURRA** ▶ Bidebieta, Altza eta Intxaurrondoko zati bat Pasaiara dira, bertako Udalaren arabera ▶ 6-7

**ETXEBIZITZA** ▶

**Udalak 140 etxebizitza zozketatuko ditu laster**

Hilabete bukaera aldera izango da zozketa ▶ 5

**GERTAERA** ▶



Gertaeraren lekua. AITZIBER IARTZA

**Gizon batek bere buruari su eman dio**




1805ko mapa honen arabera lur hauek Pasaiara dira: Gomistegi, Peruene, Akular, Arriaga... RAJA PEREZ

MUGAK ▶ PASAIKO UDALAREN MOZIOA

# Donostiako hainbat lur Pasaiarenak direla diote

Pasaiako Udaltzarak, ez-ohiko osoko bilkuran, oraingo mugekin ez dagoela konforme adierazi du, eta oinarri gisa 1805eko mapa hartu dute; Altza, Bidebieta eta Intxaurrendoko zati bat Pasaia lirateke



1805eko mugak. Mapan agertzen den lerroak, gutxi gora behera, Pasaiako Udalaren arabera, Pasaiaren lurak mugatzen ditu. Gubi gorabeherako muga den arren, ikerketaren arabera, Pasaiako lurak lirateke Bidebieta, Uliako zati handi bat, Intxaurrendoko zati bat eta baita Altzako zatirik handiena ere.

RAUL PEREZ - AITZIBER IARTZA

Pasaiak, udalerrri gisa, 200 urte bete dituela ospatu zuten atzo. Pasaiako Udalak bere mugak berriro aztertzea aldarrikatu du urteurrenean, eta batzorde bat sortu du gaia aurrera eramateko.

Udalaren eskaerak funtsean hauxe dio: «Ez gaude konforme Pasaiari ezarri zizkion mugekin. Gure borondate tinkoa adierazi dugu Pasaiari sorreran ezarri zitzaizkion mugak errespetarazteko. Etorkizuneko konponbidearen ardatza udalerrria eratzean ezarritako mugek izan beharko dute». Beraz, Pasaiako Udalaren ustez, 1805eko mugak dira baliagarriak. Muga horien arabera, Bidebieta, Uliako mendia —Murgita kalaraino—, Intxaurrendoko zati bat —Julimasene eta Guardia Zibilaren kuartelen ingurua, besteak beste— eta Altza Pasaiako lurak izango lirateke.

Pasaiako Udalak argudio historikoak erabili ditu, batez ere, lur horiek eskatzeko. Pasai San Pedrok Donostiak bereiztea lortu zuen 1805ean, eta horretan Vargas Ponce historialari eta kapitainak zerikusia izan zuen. Hain zuzen, Vargas Poncek garai hartan egindako mapa hartu du oinarri Aranzadi elkarteak eta EHUko Eskubide Konstituzional eta Administrazio Sailak, Pasaiako Udalaren eskariz, eginko ikerketak.

Pasaiako Udalaren mozioaren edukia aldeztu aurretik adostua zuten bertako alderdi politikoetako ordezkari guztiek. Eta atzoko ekitaldian ere alderdi guztietako ordezkariak egon ziren. Den-denek hartu beharrek erabakiaren garrantzia nabarmendu zuten.

Pasaiako Udalak hartutako erabakia Gipuzkoako Foru Aldundira iritsiko da, eta Aldundiarren erabakia pasaitarren gustukoa ez bada, auzitara jotzeko aukera izango dute. Auzitara jotzeak eragina izan dezake hainbat proiektutan.

## Aspaldiko auzia

Josu Tellabide historialariak Donostiako mugen inguruan makina bat lan egin du eta IRUTHULOKO HITZAREKIN hitz egin du gaiaz. «Altza, historikoki, ez da

## PASAIKO UDALAK ONARTUTAKO TESTUA ▶

Hona atzo Pasaiako Udalak onartutako akordioaren puntu nagusiak. Donostiarekin dituen mugak berriro aztertzea nahi dute eta horretarako duela 200 urteko mugak hartu nahi dituzte oinarri.

1) Eskumena duen administrazioaren aurrean salatzea gure udalerriri izendatzen zaizkion mugen aurka gaudela. Borondate tinkoa adierazi nahi dugu Pasaiari bere sorreran ezarri zitzaizkion mugak errespetarazteko. Etorkizuneko konponbidearen ardatza udalerrria eratzean ezarritako mugek izan behar dute.

2) Premiazko prozedurari ekitea Pasaia eta Donostia arteko udal-mugak jartzeko Batzordea osa dadin. (...)

3) Udal Araudi Organikoaren

14. artikulorekin aldatetari behin-behineko onspena ematea, ondoko paragrafoak erantsita: Batzorde Bereziko kide izango dira Udaltzarak osoko bilkuran izendatzen dituenak, hala bategokio, Pasaiako herritarrak baztertu gabe. Batzorde Bereziko buru Alkatea izango da eta Udal Letratuaren laguntza izango du. Era berean batzorde berezi horrek aldi bakoitzean behar ditzakeen teknikarien laguntza izango du.

4) Batzorde Bereziko zereginak honakoak dira:

- Udalerriko mugei buruzko egoera eta horrek hirigintzan, soziologian eta sozioekonomian dituen konnotazioak aztertzea eta sakontzea.
- Udalari proposatzea eta gomendatzea lur-gatazkan zer estrategia komeni zaion.
- Komunikazio-plana egitea eta udalerriri proposatzea, kanpora begira Udalaren erreferentzia izan dadin.
- Udalari beharrezko ikusten dituen azterlanak kontrata ditzan proposatzea.
- Udalak lurren auzian erabakia hartu baino lehen, galdetua izatea. Ondorioz, udaltzarrak ez du aintzat hartuko lurren auziari buruzko ezer, aurrez Batzorde Bereziko irizpena eman ez badu.


- Udalari jakinaraztea noiz komeni den herritarrei iritzia emateko aukera eskaintzea, Udalak behin betiko onspena eman baino lehen.
- 5) Batzorde Bereziko beharrezko ikusten badu, izan dezake Elkarteen lan mahaia eta berak erabakiko luke honen funtzionamendua
- 7) Ondoko hauek Batzorde Bereziko kide izendatzea:
  - Juan Carlos Aldutzin
  - Miriam Cano
  - Jesús García
  - José Luis Goikoetxea
  - Izaskun Gómez
  - Bixen Itxaso
  - Roberto López de Etxezarreta
  - Joaquín Martínez Vidal
  - José Luis Mtz de Espronceda
  - Xabier Portugal
  - Guillermo Sánchez-Berra
  - Jaime Sanz

sekula Pasaiaren menpe egon», adierazi du argi.

1805. urteraino Pasai San Pedro Donostiaren menpe egon zen. Urte horretan Donostiatik bereizi zen Pasai San Pedro eta Donibanerekin elkartu zen. San Pedro Donostiatik banatzean hasi ziren liskarrak. Pasaiak herri txikia eta arrantzalea zen, ez zuen baserririk, eta Altzako lurren zati bat hartzen saiatu zen. Tellabidek esandakoaren arabera, «Pasaiak ez zuen inolako eskubiderik Altzako lurrak hartzeko, itsasaldien bidez mugatzen baitziren herriak garai hartan. Altzak, Donostiarekin batera, bere lurra defendatu zuen, Pasaiak arrantzale herria zela argudiatuz eta lurrak hartzeko eskubiderik ez zuela esanez. Ordurako, Donostia eta Pasaiaren arteko mugak zehaztuta zeuden Trintxerpen, Azkuene kalean». Mugen eta lurren liskarrak jarraitu zuen urte batzuk geroago ere. Frankismo garaian, Altzak independentzia galdu eta Donostiaren menpe geratu ondoren, Madriletik Pasaiak menpeko egiteko idela etorri zen. Hala ere, pasaitarrek beraien burua defendatzea eta independentzia mantentzea lortu zuten».

#### Mota guztietako iritzia

Alta XXI herri ekimenak Pasaiako Udalaren ekimenaren berri bazuen eta honako iritzia



Vargas Ponceren maparen irudia. Bertan baserriak ageri dira, eta hauek ezartzen zituzten mugak. Baserriak dira, besteak beste, Tomasene, Casares, Gomistegi, Julimasene eta Peruene. Guztira 59 baserri. Hortik abiatuta, isurialdearen banalerroa hartu dute oinarri muga ezartzeko. IRUTXULOKO HITZA

dute gaiak: «Ez dugu ez Donostia ezta Pasaiako zati izan nahi. Altxa izan nahi dugu. Hala ere, Donostiaz eta Pasaiak ari bagara, bata edo bestearen menpe egotea ez zaigu lehentasuneko iruditzen. Azken finean, erabaki administratiboak aldatzeko dira. Gakoa lurrari ematen zaion erabilpena da. Pasaiak Donostiak baino hobeto tratatu behar bagaitu, bada ongi gertorria izan dadila».

Zigor Etxeburua Irutxuloko Hirzako laguntzaile altzatarren mugen gaia mahai gainean jarzea garrantzitsua iruditu zaila, «horrek erakusten duela mugen galari heldu behar zaito. Hori bai; mugak berraztertuz gero, prozesua herritarrei iritzia eskatuz martxan jarri behar dute. Egia da luzarora Altzak Pasaiarekin Donostiarekin baino harreman estuagoa izan zuela, baina ezin ukatu sa-

konean gaia bitxia dela: altzatar asko ez gara donostiar sentitzen, eta orain pasaitarrak gara rela pentsatzen hasi behar omen dugu!».

Altxan Bizi herri ekimenaren arabera, ez da zilegi orain duela 200 urteko mugez hitz egitea: «Altxa eta inguruko lurrak Altxa historikoari dagozkiola dioten ikerketak ere egon badaude. Eta, beraz? Honek guztiak Donostia eta Pasaiako udalen

#### PROIEKTUAK KOLOKAN ▶

Mugen proposamen berri honek martxan dauden proiektuak baldintza ditzake.

**Auditz Akular.** Akordioa ia lortuta dago, baina lur horietako batzuk Pasaiak eskatu ditu. Epaitegietara iritsiz gero, 3.500 etxebizitza geldiarazi litezke.

**Landarro.** Muino honetan jarri nahi du Udalak Ikea. Mugak aldatuz gero, Pasaiak jasoko litzuzke irabazi ekonomikoak.

**Uliako parkea.** Uliako parkea sortzeko proiektua geldiarazi zuten iaz Pasaiako Udalak.

Oraingoz, auzia geldirik dago.

**Buenavista.** Bertako eraikin zaharrak bota ondoren, auzoaren berrikuntza kolokan gera daiteke.

arteko liskarretan du sorburu».

Intxaurrendoko Ipar Haizea elkarteak ildo beretik doa. «Udalen arteko ezadostasunek piztu dute sua; azken aldirian, Udalak Landarron eraiki nahi izateak, beharbada, sua areagotu egin du». Intxaurrendoko elkarteak «gehiegizkotzat» jo du Pasaiako Udalaren asmoa: «Ez da herritarrek azaleratutako kezka; ez da oinarritik sortua, politikariek beraiek bultzatutakoa baiziki».

## Donostiako alderdiak, zuhur

Alderdi politikoetako ordezkariak aspalditik zuten Pasaiako Udalaren eskaeren berri; etorkizunean zer gertatu zain daude

ION LOPEZ

Udaleko alderdi politikoek serio hartu dute gaia. «Pasaiako Udalak edeki ikusi zuen Donostiako proiektuak geldiaraz zitzakeela, Uliako plana bertan behera utzi zuenean», adierazi du Carlos Sancho PPko zinegotziak. «Gai honek dirudien baino garrantzia handiagoa du; Auditz Akularreko proiektuaren eragin zuzena izan dezakeela, adibidez».

Jorge Letamendia Hirigintza zinegotziak (PSE-EE) beldurrik ez duela dio: «Auditz Akular gelditzearen beldurrik ez dut. Pasaiako Udalak bazuen mehatxuetatik ekintzetara pasatzeko ordua. Pasaiak jarrera gogorra hartzen badu, Donostiak erantzun gogorra eman du». Letamendiak gai honen inguruan hamar orriko txostena idatzita du. EAJko Xabier Ezeizabarre-

nak, zinegotzi izan aurretik, EHUko zuzenbide fakultatean Pasaiako Udalak eskatutako txostena egiten lagundu zuen: «Txostenaren arabera, Pasaiako Udalak arrazola izango luke. Dena dela, garrantzitsua bi udalen arteko elkarrizketa dela uste dut. Neurri zorrotzak hartu aurretik, negoziazioak tartea izan beharko lukete».

Urrian, Pasaiako Udaleko alderdi politikoetako ordezkariak Donostiakoekin bilera izan zutela azaldu zuen EAJko Jaione Arratibelek: «Bilera izan genuen Pasaiako ordezkariekin, eta txostena aurkeztu zigiten. Hala ere, Donostiako eta Pasaiako PSE-EEko alkateak elkarrekin ez hitz egiteak harritu egiten nau. Elkarrizketa da, honetan, garrantzitsua».

Antzeko iritzia azaldu zuen Josetxo Ibazeta Baga Bogako bozeramalleak: «Bagenekien

Pasaiak lurrak berreskuratzeko dokumentu historikoak zituela. Gai hauek bi udalen arteko elkarrizketarekin konpondu behar direla uste dugu. Nire ustez, Bidebietako biztanleei ezin diegu esan orain pasaitarrak direla; irrealia litzateke».

Ezker Batuko Duñike Agirrezabalagak esan zenez, bestalde, «Pasaiak eskubidea du nahi duena eskatzeko; Aldundiak hartu beharreko erabakiaren zain egongo gara. Donostiari gaia gainera datorkio, eta onartu beharko dugu».

Udaleko alderdien beldur nagusietako bat Auditz Akular da. Pasaiak epaitegietara joko balu, Auditz Akularreko 3.500 etxebizitzak geldiaraz litezke. Etxeak eraikiko balira, eta epaitegietan Pasaiak irabaziko balu, udalek jasotzen duten ekoizpen irabazien %10 Pasaiarentzat litzateke.



Azto Pasaiaren 200. urteurrena ospatzeko eginiko ekitaldiaren irudia. Pasaiako alkatea eta alkate ohiak izan ziren bertan eta baita Miren Azkarate eta Joxe Joan Gonzalez Txabarri. URKO ETXEBESTE/OARSALDEKO HITZA

«Egin» irakurketan  
**PRESENTACIÓN DE MARÍA**

**LANBIDE HASTAPENA**  
**ESPEZIALITATEAK:**

- ELEKTROGAILU KONPONKETA LAGUNTZAILEA
- INFORMATIKA EKIPOEN KONPONKETA LAGUNTZAILEA
- INSTALAKUNTZA SINGULARRETAN LAGUNTZAILEA: MEGAFONIA, ANTENAK, ALARMAK, PORTERO AUTOMATIKOAK

Matrikula Zabalik

Mandasko Dukea, 1 • 20012 DONOSTIA  
Tel./Faxa: 943 46 01 45 • CIPP.MARIA@terra.es